

CANVAS EREDUA

Banaketa eta komunikazio kanalak

Christmas Rent enpresak bi salmenta mota eskaintzen ditu, online platarforma europa osotik eta salmenta puntu fisikoetan, kasu honetan, Elexondo Kalea, 5, 01470 Amurrio, Araba. Bezeroek aukera onena aukeratu ahal izango dute beren erosotasuna edo gustuak aukeratuz. Online plataformak bezero horiek gure enpresa ezagutzeko eta edozein lekutatik eskaintzen ditugun produktuak ikertzeko balio du (www.christmasrent.com). Salmenta puntu fisikoetan, berriz, harreman zuzena izango dute gurekin eta pertsonalki argituko dituzte zalantzak.

Informazio hori era guztietako publikoengana iristeko, eremu teknologikoan, webgunea online eskaintzeaz gain, Instagramen kontu ofizial bat daukagu ([christmas.rent](https://www.instagram.com/christmas.rent)). Bertan, enpresaren berrikuntza guztiak eta informazioa modu entretenigarriagoan argitaratzen ditugu.